

IRABAZI-ITURRRIAK

- **Produktu ekologikoak saltzea:** gure baserriaren salmentak batez be produktu ekologikoen salmentak oinarrituko dira, hots, barazkiak, fruituak eta oiloek ekoiztutako arrautzak. Gainera, landareen salmentan ere oinarrituko gara, etxebizitzak apaintzeko, adiskide edo maite dugun pertsona bati oparitzeko, etab. Horretarako, gure kontsumo taldea nahiko nabaria izango da, besteak beste, bere osasunaz zaindu nahi dutenek, tokiko salmentan jakingura dutenek, etab. Proportzioa: 50%
- **Baserriko azpiproduktuak saltzea:** Nekazari guztiek, noizbait, ekipamendu finantzaketa beharko dute beren baserrirako, eta horretarako funtsak biltzeko modu erraz bat zure lurretan dituzun baserriko azpiproduktuak saltzea da, esateko, oiloen simaurra edo jasotako lumaraino. Proportzioa: 10%
- Nekazaritza-titulua ikasten ari diren pertsonentzako **tailerrak antolatuko ditugu** edo zure baserrian eguneroko bizitzan gertatzen diren prozesuei buruzko hitzaldiak eman ditzakezu ikastetxeetan edota zure baserrian. Proportzioa: 20%
- **Ekitaldiak baserrian** antolatzeak gure diru-sarrerak areagotuko ditu, hitzaldi-eremu bat ezarri eta gure baserriko produktuekin egindako janaria eskainiko bait dugu. Ikastetxeei eta unibertsitateei gure baserrian ohiko hitzaldiak egiteko aukera eskainiko dizkiegu, nekazaritza gaietan interesa duten ikasleei. Proportzioa: 20%